



KRISTAU ESKOLAK ETA AICEK NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA APURTU ETA "VI CONVENIO COLECTIVO ESTATAL DE CENTROS SOSTENIDOS CON FONDOS PÚBLICOS" EZARRIKO DUTE.

Gaur, uztailak 5 , 16. aldiz bildu da Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziazio mahaia. Bertan, eta sindikatuek aurreko bileran KE-k hitzarmenaren indarraldiari buruzko aurkeztutako proposamenari ezezkoa eman ondoren , KE-k idazki berri bat aurkeztu du (AICE-k bere egin duena). Idazkian KE-k adierazten du negoziazioak bertan behera geratzen direla , hitzarmenaren indarraldia amaitu dela eta, beraz, uztailaren 7tik aurrera KE eta AICE-ko ikastetxeetan ezarriko den lan hitzarmena "VI Convenio de Empresas de Enseñanza Privada sostenidas total o parcialmente con fondos públicos" dela.

STEE-EILAS-ek , beste sindikatuak bezala, uste du eguneko "Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen hitzarmen kolektiboa 2008-2009" indarrean jarraitzen duela bere 4. artikulua adierazten duelako bere iraupena luzatuko dela 2010ekoa indarrean sartu arte. Bestetik, Langileen Estatutoaren 86. artikulua dio: "La vigencia de un convenio colectivo, una vez denunciado y concluida la duración pactada, se producirá en los términos que se hubiesen establecido en el propio convenio ".

STEE-EILASek oso erabaki larritzat hartzen du patronalek indarrean dagoen Gizarte EAEko Ekimenezko Ikastetxeen lan hitzarmena ez betetzea eta askoz ere eskasagoa den beste hitzarmen bati atxikitzea.

KRISTAU ESKOLA eta AICE Raxoik eta enparauak ezarritako lan erreforma erabiliko dute eta horrek ematen dizkioten aukerez baliatzen saiatuko dira alorreko langileen lan-baldintza okerragoak ezartzeko.

Erabaki honek, negoziazio kolektiboa auzitara eramateaz gain, 2013-14 ikasturtea beste gatazka batekin hastea suposatzen du. STEE-EILASek erantzun egokia emango dio gatazkari eskura dauzkan tresna guztien bidez.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org